

HOTSIK GABEKO NEGARRA

Miren Ibarluzea, 17 urte

Mungia

Atsedenezko arnasa
“bera” ez den bitartean
iraunkor dirauten arren
dardakadek bihotzean,
urduritasuna giltza
zarrailean entzutean,
izua eta beldurra
jaun da jabe bat-batean.
Sentimenduen taupadak
galdurik noraezean,
malenkonia izpiak
begi goibelen antzean,
atsekabez asetako
sendien zorigaitzean
atsegina dohakabe
iluntasun laiotzean.

Whiski koparen usaiak
preso hartzen du giroa,
beldurra darien haurrek
ezin dute hartu loa.
Amaren –Non egon zara?
Izan daiteke nahikoa
indartsuak biztu dezan
guda sutsuen gogoan.
– Hemen ni naiz nagusia!

Aginpidezko leloa.
– Hona dirua neuk dakart!
Matxismoaren orroa.
Argibako begirada,
aurpegikera zoroa.
Amorruz kanporatzen du
galdu zuen haurtzaroa.

Mezprezu eta iraina
handikerizko sugarra,
menpekoaren samina
nagusiaren indarra.
Gorrotozko sinfonia
ukabilaren marmarra.
Hitzez azaldu ezina
kolpetan esan beharra.
Zartadaz hautsi orduko
adeitasunaren marra,
odolez zipriztintzen da
indargearen negarra.
Inpotentzian itota
mututzen da deidarra.
Malko eta garrasiak
dira defentsa bakarra.

Arrazoia ukatzean
datzan mehatxu sistema:
– Alde egingo dut! Banoa!
Hemen bukatzen da dena!
Nahiz eta hori den behingoz
egin behar lukeena,

funtsean koldar hutsa da
ez daki zer den kemena.
Isiltzera behartzea
gutxiespeneko lema,
errudun sentiaraziz
errubako haundiena
ziurgabetasunaren
eusle munduan barrena
gezurrez mozorroturik
zorrozutako eztena.

Gerora hainbeste kezka
arazo eta zalantza,
ezbeharren zorigaitzak
orekatzen du balantza.
Nekez atera daiteke
iltzatutako arantza.
Nekez aldatu daiteke
horen bizimodu latza.
Erantzun bako galderak
dira zergatien martxa,
patuak batzuk ekarri
beste batzuk darmatza.
Hoberako aldaketek
sortzen dute mesfidantza,
esperantza hutsa baino
ez delako esperantza.

Sarritan elkartzen dira
komedia eta drama
soineko zuriz janztean

doluz behar luken dama,
atea zeharkatzean
aldatzen da panorama:
otso maltzurrenak ere
har dezake ardi fama,
arrosa zume argiaz
margotu nahiean dana,
irri batek estaltzen du
barne zauriaren zama,
sufrimendua norberak
barrunbeetan darama
fikzioa baino ez da
gure arteko harremana.